


HOZTE SISTEMAK



Normalean, **26°C-ko hozte**-temperatura nahikoa izaten da eta horrela kanpoko giroko temperaturarekiko alde handiak saihestuko dituzu.

0

Ba al zenekien...

aire girotuz klimatizatutako gela baten eta kanpoaldearen artean 12°C-tik gorako aldea egoteak osasun arazoak eragin ditzakeela?

Aprobetxatu **goizeko** eta **gaueko** lehen orduak etxea **aireztatzeko** eta karga termikoa murrizteko.

0

Haizagailu batek, ahal dela **sabaikoa**, 3 eta 5°C bitartean murriztu dezake **sentsazio termikoa**, eta kasu askotan nahikoa izan daiteke udako hilabeteetan **erosotasuna** mantentzeko.

€

Murriztu zure etxea hozteko **beharra**, etxea **eguzki-oihal, pertsiana, itzalkin, eta** abarrekin eguzki izpietatik babestuz. Erabili kolore argia dutenak, izpi gutxiago xurgatzen dutelako eta gutxiago berotzen direlako.

€€€

Badakizu...

zure etxean aplikatzen dituzun eraginkortasun neurriek etxearen energia eraginkortasunaren ziurtagiria hobetzea, dirua aurreztea eta etxearen balioa handitzea ahalbidetzen dutela?

Argiek eta **etxetresna elektrikoek** ere **beroa sortzen** dute, beraz, horien erabilera mugatzen baduzu, ez duzu handituko etxea hozteko beharra.

0